



AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko martxoaren 14an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemeretziko martxoaren hamalauan, Jose Francisco Mendizabal Irigoien Alkate jauna mahaiburu delarik, Gorka Unanue Zabala eta Mikel Arregi Urrutia korporakideak bildu dira.

Idazkari lanetan, Ander Cestona Unanue jauna, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea aritzen da.

Ondorengo akordioak hartu dira:

1.- Bere osotasunean onartzen da Gobernu Batzordeak 2019ko martxoaren 14an buruturiko saioari dagokion akta.

2.- INSTANTZIAK

2.- Zubimusu kalea 6ko Jabekideak, bodegetan xaguak dabiltzala eta neurriak hartzea eskatzen dute. Jakinaraziko zaie Udalak enpresa batekin azpikontrataturik daukala arratoien aurkako tratamenduaren zerbitzua, eremu publikorako. Etxe pribatuetan udalak ez du eskumenik.

3.- J.A.B.E.k, Olaizola eta Uria kalea 16ko Motxa-enean eraberritze lanak 2002ko urtarrilaren 10ean amaitu zirela dio. Ondorioz, etxearen EITa egiteko epea data horretatik kontatzen hastea eskatzen du. Eskaera onartzen da, beraz, , 2002ko urtarrilaren 10etik aurrera 50 urte igaro ondoren, egin beharko da EIT txostena.

4.- Sakulupe Guraso Elkarateak, eskolaz kanpoko ekintzetarako, tailerretarako eta bileretarako Haur Hezkuntzako lokala eskatzen du. Arroabeko eskola berria amaitzen denean, Udalaren jabetzako zenbait lokal hutsik geratuko dira. Udalak azterketa bat egin behar du, jasotako eskaeren eta auzotarren beharren arabera, lokal hauei zein erabilera eman behar zaien zehazteko.

5.- A.I.L.k, Arretxe plaza 1-2ko Jabekideen izenean, eraikin horretako teilatuko konponketa lanetarako palataformarentzako 2 aparkalekuren eskaera, Toribio Altzaga kalean otsailaren 27tik martxoaren 1era. Baimena ematea erabaki da.

6.- A.I.L.k, Elizkalea 10eko Jabekideen izenean, Elizkalea 10 atzeko andamio azpian segurtasun zinta jartzeko baimena eskatzen du, andamiaoa desmontatu ahal izateko otsailaren 26an. Baimena ematea erabaki da.

7.- I.L.B.k, Arteaga auzunea 13ko Jabekideen izenean, eraikin horretako portalean andamiaoa montatu eta materilaren bilketarako okupazio eskaera, martxoaren 28rako. Baimena ematea erabaki da.

8.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak, Arroako Kaminerokua etxea eraistea aurreikusten duela eta, Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa egiteko Udal honek egindako eskaera artxibatzea eskatzen du. Udalak Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketarako Departamentuari plangintza zehatza eskatuko dio, Arroako Bidezain etxea eraisteko aurreikusten den data zein den zehaztuz eta ondoren, plangintza honen arabera aztertuko du Udalak eskaera.

9.- D.R.D.k, Sansineneako industrialdean, martxoaren 2an, kontainer bat kargatzeko baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da.

10.- E.A.A.k, Akoabidea 6ko Aurrekoetxe baserrian berritze obrak egin zituztela eta, obra amaierako ziurtagiria ez dutenez, aurkezten dituzten frogagiriak kontutan hartzeko eskatzen du, EITa egitetik salbuesteko. Ikusirik, ez duela ez lehen okupazioko lizentziarik aurkeztu, ezta obraren amaierako ziurtagiririk, EIT txostena egin beharra dago. 2 hilabeteetako epea emango zaio.

11.- I.E.U.k, adierazten du gaur egun bera eta bere anaia direla Barrenso baserriaren jabeak. Udalak "EIT" delako tramitea osatu behar dutela jakinarazi diela eta hainbat ikuspuntu azaltzen dituzte. Erabaki da txostena egitea dagokiola.

12.- V.U.J.k, Bainuetxeko errepeidea 17an aterpe-biltegia berreraikitzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

13.- Imara Ingeniaritzak, Agote industrialdeko AG.12 Agote liko urbanizazio proiektuaren obra amaierako ziurtagiria aurkezten du, Udalak urbanizazioa jaso dezan eskatuz eta bere garaian jarri zen abala itzultzeko eskatuz. Behin betiko birpartzelazioa egin ondoren, eredu egokia erregistratu zen egiaztatuko da eta obrak hasi aurretik jarri zen abalaren ziurtagiria berreskuratuko da.

14.- J.L.E.A.k, Arroabeko Artzubial-aldea ibardiaren berreskuperatze eta hobetze lanen otsaileko kamioi erregistroa eta planoak aurkezten ditu. Erabaki da kamioi erregistroa jaso izanaren adierazpena egitea.

15.- J.I.S.M.k, Larrain kalea 1 4. eskubia etxebizitzako sukaldea eta bainugelaren konponketa lanak egiteko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

16.- A.V.Z.k, Iraeta hiribidea 15zk. bainugelaren konponketa lanak egiteko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

17.- Beltran Ascensores y Montacargas S.L.k, San Isidro kalea 16 eraikinean igogailua jartzeko obra baimen eskaera egiten du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

18.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak, GI-631 eta N-634 errepideen arteko biribilgunean laugarren bideadar bat sartzeari buruzko erantzuna igortzen du. Erabaki da jaso izanaren adierazpena egitea.

19.- Gesalaga kalea 18-22 bitarteko Jabego Elkartek. Proposatutako zesioaren helburua da Zubimusu kaleko espaloia berritzea eta zabaltzea eta horrela eragozteko ibilgailuak bertan aparkatzea. Erabaki da hitzarmena ontzat ematea eta Alkatea ahalbidetzea zesio edo lagapen hori gauzatzeko beharrezko dokumentuak sinatzeko.

20.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Sareko zarata maparen inguruko foru aginduaren berri ematen du. Berri eman da.

21.- I.O.E.k, Gorotzarri etxearen obra berriko eskriturak aurkeztu ditu eta etxearen lehen okupaziorako lizentzia eskatzen du. Erabaki da lehen okupaziorako lizentzia eman aurretik, udal bulegoko teknikariek bisita egingo dutela tokira bertara.

22.- J.A.G.G.k, Gañetabidea 4ko Artagain etxearen berriztapen proiektua aurkezten du eta etxearen ondoan 30 m²-tako txabola egiteko. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

23.- I.S.I.k, otsailaren 19an, 23:45etan eta otsailaren 20ko 21:30ean, Aditek enpresatik 85 dBko zarata ateratzen zela jakinarazten du. Jakinaraziko zaio enpresa jardueraren legeztatzea tramitatzen ari dela eta legeztatze prozesu horren baitan, enpresa homologatu batek egindako zaraten neurketa eskatuko dela. Bestalde, jardueraren tramitazioan sortu daitezkeen arazoak ekiditeko, enpresaren arduradunarekin harremanetan jarriko da Udala. Bilera honetan, zarataren arazoa konpontzeko eskatutako zaio jardueraren titularrari.

24.- A.I.Q.k, Arroako Sansinenean egiten duela lan eta bere kotxean herdoil pinportaz josirik dagoela dio. Susmoa du GRI Casting edo Lanon enpresetatik ote datorren arazoa. Jakinaraziko zaio martxoaren 27an GRI Castings S.L. enpresan ikuskaritza egingo duela Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak, besteak beste, atmosferaren gainean ezarritako neurriak betetzen direla egiaztatzeko. Bestalde, ikuskaritza aurretik, Zestoako Udalak Ingurumen Sailari aurkeztutako kebaren berri emango dio.

25.- E.A.Ak, Arroan bizi dela eta kotxeak herdoil pinportaz beterik daudela dio. Arazoa aztertzea eskatzen du. Jakinaraziko zaio martxoaren 27an GRI Castings S.L. enpresan ikuskaritza egingo duela Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak, besteak beste, atmosferaren gainean ezarritako neurriak betetzen direla egiaztatzeko. Bestalde, ikuskaritza aurretik, Zestoako Udalak Ingurumen Sailari aurkeztutako kebaren berri emango dio.

26.- Kiroldegiko kontratuaren aldaketa:

Batzordeburua den Gorka Unanuek adierazi du, Zestoako Kiroldegiaren birgaitze eta handitze obren kontratua 2017ko azaroaren 2an sinatu zela, ondoren, abenduaren 5ean obra hasierako akta sinatu zela gehitu du. Aldaketa nagusiki, zimentazioko prozesuan arazoak sortu zirelako dela adierazi du Gaizkak, eta lan horien epea luzatu beharra gertatu zelako. Zimentazio lanak zirauen bitartean frontoiaren eremu guztia irekita zegoenez, eta ondorioz eguraldiaren eraginetara, eta kontuan izanik garai hartan denborale batzuk izan zirela, kalteak gertatu ziren, eta kalte hauek aurreikusi gabeko lanak ekarri zituzten. Eta hauek aurreikusi gabe zeundenez eta eguraldiarengatik ezinbestekoak direnez, kontratuaren aldaketa proposatzen da. Aldaketaren dokumentu teknikoak 134.724,69 euro gehi 28.292,18 euro BEZagatik jasotzen du bere aurrekontuan eta ondoren esleipen nagusian enpresak egin zuen beherapen berdina egiten zaio, 128.567,77 euro gehi 26.999,23 euro BEZagatik.

Zestoako Kiroldegiaren birgaitze eta handitze obren kontratuaren aldaketa ontzat ematea. Hala eta guztiz ere, Udaltzak bidezkoz jotzen duena ebatziko du.

27.- Kutxabank S.A., kontsulta egin dute Arroabeen kutxazaina jartzeko aukeraren inguruan. Zestoako Udalak kontsulta egingo du Kutxabank S.A.-an Arroabeen kutxazaina jartzeko zein baldintza eskatzen dituen jakiteko.

28.- Gesalaga kalea 4 zk.an dagoen eraikinak 50 urte baino gehiago dituela ikusita, eta EIT txostena egitera derrigortuta dagoela ikusteko. Zestoako Udalak teknikari bat kontratatuko dut Gesalaga kalea 4 zk.an kokaturik dagoen eraikinari EIT txostena pasatzeko.

29.- Villa Anita, Karmengo Ama 6 zk.an kokaturik dagoen eraikina gero eta egoera txarragoan dago. Behin-behinekoz teilatuan jarri zitzaizkion toloak haizearekin mugitu egin dira eta tximiniaren zati bat erori egin da. Egoera arriskutsua da. Erabaki da jabearekin bilera egitea.

30.- Mañeneko ukuilua. Mañeneko ukuilua etxebizitza erabilerarako prestatu dela azalduz, salaketa aurkeztu da udalean. Erabaki da udal arkitekto teknikoak eta hirigintza zinegotziak bisita egitea tokira bertara datorren astean eta datorren hirigintza batzordean ikusitakoaren berri ematea.

3. Batzorde informatiboetako akten onarpena

2019ko otsailaren 28an, Kultura Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

4.- ALKATETZA EBAZPENAK.- Honako Ebazpenen berri eman da:

* 88 zk, Gas naturala hornitzeko kontratazioaren zentralari atxikitze hitzarmena onartzea.

* 89 zk, M.L.ri Zestoako Baratzeko Parkeko 16 zenbakidun ortua erabiltzeko lizentzia ematea.

* 92 zk, Zestoako Ipintza eta Gurutzeaga kalean azpiegiturak sartu eta igeltzeritsa lanak egiteko lanen esleipena.

- * 93 zk, Zestoako Ipintza kalea berriz asfaltatzeko lanak Asfaltos Urretxu S.A.enpresari esleitzea.
- * 94 zk, Zestoako Ipintza kalean aparkalekuen margoketa lanak Tesec Señalizaciones S.L. enpresari esleitzea.
- * 95 zk, Zestoako udalerrian GI-631 errepidearen eta Gurutzeaga kalearen lotunean kuneta egiteko lanak Excavaciones Ekin S.L. enpresari esleitzea.
- * 96 zk, Zerbitzu sailari txostena eskatuz: udal brigadaren eta eraikinen garbiketa zerbitzuaren organigrama eta aurreikuspena
- * 97 zk, Lasako 21-030 partzelan behientzako ukuilua jartzeko jardura baimena ematea J.U.A.ri.
- * 98 zk, Lasako 21-030 partzelan behientzako ukuilua egiteko obretako udal baimena ematea J.U.A.ri.
- * 99 zk, Foru Aldundiko Kontratazio Zentralaren Posteko Espedientera atxikitzea.
- * 100 zk, Z.L.ren kontratazioa I.A.ren gaixotasun baja ordezkatzeko
- * 101 zk, Zestoako herrian etxebizitzak alokatzeko 2019ko diru-laguntza deialdia egitea.

5.- ELKARRERANTZUN OFIZIALAK

- Administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Estatuko Administrazio Orokorrarekin, 2017ko martxoaren 24an eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatu dituen lankidetzak-hitzarmenekiko atxikimendu protokoloa.

6.- GALDERA ETA ERREGUAK

Ez dago.

Ander Cestona Unanue
Idazkaria,

O.e
Alkateak,